

Elkarrizketa (Abantoko aldizkaria)

Kaixo Joseba Felix, esan nizun bezala bidaltzen dizkizut niri burututako galderak, gure aldizkarian argitaratzeko asmoz.

Hasi baino lehen hona hemen elkarrizketa batzuk:

UEUn:

<http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/krisia-induzitua-izan-da>.

Le Journal du PB-n:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2011/08/27/le-journal-du-pays-basque-elkarrizketa/>

Jatorrizko bertsioa:

<http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/le-journal-du-pbk-egindako-galderak>

GARAn:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2011/12/11/elkarrizketa-gara-n/>

Tolosaldea Hitzan:

<http://tolosaldea.hitza.info/2013/04/17/krisia-ez-da-etorri-ekarri-egin-dute-baina-badaude-irtenbideak>

Hamaika Telebistan:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/06/03/hamaika-telebistan-egindako-elkarrizketa/>

UEUkoek egindakoa:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/06/13/ueukoek-egindako-elkarrizketa/>

Galderak

- Gaur pairatzen dugun egoerari agintariak deitzen diote krisia baina errealitatean nire ustez hori eufemismo baino ez da. Gure gazteek pankarta baten jarri zuten bezala arazoa ez da krisia baizik eta sistema.

Ez, arazoa krisia da. Are gehiago, sisteman agintzen dutenek (banku handiek) krisia *nahita* sortu dute.

(Ikus goian aipaturiko elkarrizketak.)

Krisia induzitua izan da¹.

Jadanik existitzen ziren aktiboak behin eta berriz saldu eta erosi dira espekulaziorako, mozkinak ateratzeko, ekonomia produktiboa ukitu barik.

Askotan aktibo horiek toxikoak izan dira, bestetan airezkoak (deribatua, opzioak eta abar), eta bestetan zabor hutsa.

Aktibo horiek saltzen zituztenek bazekiten nolakoak ziren!

Ondorioz, aktibo prezioen inflazioa eta zorrak bultzaturiko deflazioa azaldu dira, batera. Hau da, burbuila ekonomia bultzatu dute, harik eta burbuilak lehertu arte².

Baina, 'sisteman' bertan badaude mekanismoak krisitik ateratzeko!

Horretarako, alta, diruak nola funtzionatzen duen jakitea premiazko baldintza da. Gero, politika fiskal egoki bat erabili behar da.

Eskari agregatua da krisiaren funtsa. Bera areagotu behar da. Hortaz, politika fiskalean datza irtenbidea.

(Ikus nire liburua³, UEUko webgunea⁴ eta UEUkoek egindako elkarrizketa⁵.)

- Nola aztertzen duzu duela gutxi ontziolekin gertatu dena? Nortzuk dira benetako errudunak? Benetako onuradunak? Lehenago zer gertatu zen "birmoldatze hartan"?

Hau beste arazo bat da. Arazo hori benetako ekonomia errealarari dagokio.

Ekonomia errealean enpresa erraldoiak, handiak, ertainak eta txikiak daude. Daukaten boterea ez da homogenea. Zenbat eta handiago izan, orduan eta botere handiagoa dute.

Ontziola, beste esparru industrial batzuk bezalaxe, enpresa ezberdin horien menpe dago. Nazioarteko enpresa dira boteretsuenak, askotan oligopolioak izanez: prezioak nahi dituzten mailan jartzeko gai dira, baita produkzioa nahi duten esparru fisiko- geografikoetan ekoizteko ere, hau da, 'nazio' desberdinetan nahi duten moduan aritzeko.

Europar Batasunak ez dauka politika industrial argirik afera horretaz erabakitzeke. Beraz, EBko Estatu desberdinetan dauden enpresa handiek erabakitzen dute ahal duten moduan. Espainiak aukera gutxi dauka 'bere' enpresak babesteko, Baskongadek are gutxiago. Hortaz, horrela ikus daiteke zer nolako produkzio mailak ezartzen diren esparru ezberdin horietan.

¹ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/krisia-induzitua-izan-da>.

² Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/fire-sektorea> eta <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/burbuila-ekonomia-2008>.

³ Ikus http://www.buruxkak.org/liburuak_ikusi/2278/Diru%20Teoria%20Moderno%20eta%20finantza-ingeniaritza.html.

⁴ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/>.

⁵ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/ueuren-elkarrizketa-joseba-felix-tobar-arbuluri>.

Ondorioz, enpresa txiki eta ertainetan produkzioa murrizten da: ERE delakoa agertuz, eta langileak kaleratuz...

Baskongadek ez daukate ez konpetentziarik ez ahalmenik afera horretan erabakiak hartzeko, protesta egiteko bai, besterik ez. Ezin dituzte 'beren' enpresak babestu...

Errudunak? Aipaturiko testuinguru horretan bilatu behar dira.

Etorkizuna? Oso beltza!

Gainera, independentzia politikoak ez du, berez, suposatzen independentzia ekonomikorik eta industrialik.

Ba ote dago horretaz arduratzen den inor Euskal Herrian? Non?

- Garai baten meategiak ustiatzen zituztenek (gero eraikitzeko halako luxuzko egoitzak NEGURIN) gaur egun ere Petronorrekin ere horrela jarraitzen dute, dugun aberastasun oro lapurtzen. Eta hori bakarrik ez. Gainera eskualde osoa zabortege bilakatu dute. Zer deritzozu horri?

Ibar Ezkerrean bi fenomeno ezberdin ezagutu eta jasan ditugu:

Alde batetik, hemen zegoen industria desagertu dute, beste norabait eramanez, soldata merkeagoak, ekologiako kontrolik eza, gizarte segurantza barik, hots, produkzio baldintza 'hobeak' bilatuz.

Nahiz eta enpresa bat edo beste bertan egon, oro har, egia da eskualde ia osoa zabortege bilakatu dutela.

Ez soilik hemen, ordea.

Beste aldetik, kapitalismoa aldatu da, erabat. Lehengo kapitalismo industrialia finantza-kapitalismo bilakatu da⁶, dute.

Dirua da nagusi, ez kapital industrialia finantza kapitala baizik. Eta horrek erabat aldatu du dena.

Kredituei begiratu behar zaie⁷. Orain ustiaketa beste modu batez gertatzen baita⁸.

Ez hori bakarrik, ohiko teoriak, marxismoak edo eta teoria ortodoxoek, ez dute ezertarako balio. Beste teoria berri bat(zuk) behar d(ir)ja dagoen kapitalismo berria ulertu ahal izateko eta praktikan berari aurre egiteko.

Hona hemen teoria berrirako proposamen bat⁹.

⁶ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/finantza-kapitalismoa>.

⁷ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/dirua-eta-kreditua>, <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/kreditu-ekonomia> eta <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/dirua-kreditua-eta-bankugintza>.

⁸ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/ustiaketa-berriaz-hitz-bi>.

(Teoria berriaz jabetzeko, ikus argitaratutako azken liburua¹⁰.)



Diru Teoria Modernoa eta finantza-ingeniaritza

- Gure herri honek gero eta langabe gehiago ditu, azken datuen arabera 1240. Horrek ez du konponbiderik. Zer egin dezakegu horren aurrean?

Langabezia da arazoa. Ados. Hortaz, eskari agregatua bultzatu eta hedatu behar da. Eta horretarako, arlo publikoan *lan bermea* da giltza¹¹.

Sasi ezkertiarren artean hedatua den leloa lana birbanatzea da. Baina, lana ez da birbanatu behar¹². Lanpostu berriak sortu egin behar dira.

Ibar Ezkerra Bizkaian dago, Bizkaia Euskal Herrian. Euskal Herria bitan banatzen dute bi estatuk. Bi estatu horiek euroa erabiltzen dute, baina ez dira euro jaulkitzaileak, euro erabiltzaileak baizik¹³.

Hortaz, hona hemen gehigarri berezia, ahalik eta lasterren martxan jartzeko.

Gehigarria: Europako, Espainiako eta Frantziako Banku Zentralak. Eta Euskal Herrian?

Baskongadetan Espainiako BZren 'adarra' martxan jartzea litekeena da¹⁴.

Era berean, Nafarroan Espainiako BZren 'adarra' martxan jar liteke. Zergatik ez?

Iparraldeko Frantziako BZren 'adarra', litekeena ote?

⁹ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/xix-mendeko-marxengandik-xxi-mendeko-diru-teoria>.

¹⁰ Ikus http://www.buruxkak.org/liburuak_ikusi/2278/Diru%20Teoria%20Moderno%20eta%20finantza-ingeniaritza.html.

¹¹ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/langabeziaren-aurka-lan-bermea>.

¹² Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/07/08/banaketarik-ala-aurre-banaketarik/>.

¹³ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2012/04/15/moneta-jaulkitzaileak-eta-moneta-erabiltzaileak/>.

¹⁴ Ikus http://www.astekaridigitala.net/El_Gobierno_vasco_reclama_competencias_del_Banco_de_Espa_a_en_materia_de_control_de_entidades_financieras_n31357.aspx.

Frantziak ez du onartzen gure Iparraldea. Baina Baionako Merkataritza Ganbara¹⁵ hortxe dago.

Espainiako Banku Zentral horien 'adarrak' martxan jarriko diren bitartean (Euskal Herriko BZ lortzearren!), hona hemen proposamen zehatz bat.

Jadanik ezaguna denez, Europako Banku Zentralak (EBZ) euroak jaulki ditzake inolako arazorik gabe, behar diren beste euro, eta **teklatuaren bidez**¹⁶.

Euro multzo hori EBko estatuetan banatu ahal da, populazioaren arabera, Warren Mosler-ek erakutsi digun bezala.

Hortaz, EBZtik Frantziara **X** dolar joango liriteke eta Espainiara **Y**.

X dolar haietatik, eta Iparraldeko biztanleriaren arabera, Baionako Merkataritza Ganbarari **w** dolar dagozkio.

Y dolar haietatik, Baskongadetako hiru Diputazioei, biztanleriaren arabera, **z** dolar dagozkie, eta **v** dolar Nafarroako Diputazioari, hots, nafar Gobernuari.

Modu horretan, hala Iparraldean nola Hegoaldean dirua egongo litzateke arlo publikoko betebeharrak eta beharrianak betetzeko: **w + z + v**.

Kasu, inbertsioa publikoa finantzatzeko, enpresa txiki eta ertainerako diru laguntzak emateko, irakaskuntzan eta heziketan dirua sartzeko, gauza bera osasungintzan, eta, nola ez!, 62 urtetik aurrera, erretiro duinerako behar den beste euro erabiltzeko. Baita **lan bermeko** programetan aritzeko ere.

Dirurik badago.

Non? EBZn 'dago'. Baina diru hori ez da objektu bat. Dirua **teklatuaren bidez** sortu ahal du EBZk. **Kostua zero da**.

Gainera, *zer egin bankuekin?* funtsezko galderari emandako erantzuna ondoko linkean zirriborratzen da¹⁷.

Prest ote gaude Europako BZri geuri dagokiguna eskatzeko modu demokratiko eta arrazoitsu batez?

Prest ote gaude horrelako 'politika' zuzena martxan jartzeko?

Zertan ari gara?

- Berehala guk kontzientzia hartzen ez badugu kapitalismo basatiak geratzen zaigun apurra ere lapurtuko digu, gure hondartzetako harea kasu. Draga erraldoiekin, superportuaren birmoldaketa aitzakia erabiliz, Abra osoa suntsituko dute. Momentuz mintzatzen dira 10000

¹⁵ ikus http://eu.wikipedia.org/wiki/Baiona-Euskal_Herriko_Merkataritza_Ganbara.

¹⁶ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/06/20/teklatuaren-bidez/> eta <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/06/20/teklatuaren-bidez-eurolandian-ere/>.

¹⁷ Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2013/06/24/zer-egin-bankuekin-fedtik-eta-ebztik-euskal-herrira/>.

miloi harea tona erauzi nahi dituztela. Duela gutxi , dagoeneko, hasi ziren ateratzea Muskiz eta Zierbenako hondartzan. Esan behar da, bidenabar, izugarrikeria horietan guztietan EAJ, PP, eta PSE alderdien baldintzarik gabeko laguntzarekin burutu dituztela bururatutako desmasiak.

Kapitalismo 'industrialak' horrelako basakeria eta are okerragoak egin ditu eta egingo ditu. Galga jarri behar zaio, noski. Era demokratiko baten bidez eta lapurtzeko duen jarrera bideratuz.

Gainera, afera horretan ondasun publikoaren ustiaketa eta mozkin pribatuak nahasten dira. Suposatzen dut udalek asko izango dutela esateko eta egiteko.

Lapurretarik handiena finantza arloan gertatzen ari da hemen eta nonahi. Eta horretaz oso gutxi aipatzen da...

Zer geratzen da bankuekin, aurrezki kutxekin, segurantza erakundeekin, hipotekekin eta higiezin errealekin?

Zertan ari dira 'gure' politikariak eta ekonomialariak?

!!!???

- Zonalde honetako langile mugimenduari (orain eta iraganean) buruz ez dakigu gauza handirik, posible balitz, gustatuko litzaiguke jakitea ea zuk erreferentzia edo beste duzun.

Gauzatxo bat edo beste bai, badaukat.

2000eko Ander egunean, Trapagarango Olaso jauregian hitzaldi bat eman nuen, "*Ibar Ezkerreko ekonomiaren bilakaeraz zenbait ohar*" izenekoa.

Orain berridazten ari naiz lantxoak. Bertan XIX. menditik XXI. mendera doazen aldaketa ekonomiko nagusiak aipatu nituen. Hona punturik garrantzitsuenak:

XIX. mendean:

Bizkaia Foruen aroan, Lehen gerla karlista, II. gerla karlista, Konde siderurgikoak.

XX. mendean:

1930eko hamarkada, gerla 'zibila', 1936tik 1978rako frankismoa, 'demokrazian' ote?, errepresioa, mendearen bukaera.

XXI. menderantz:

Aro berria. kapitalismo berria.

Gehigarria.

(Lantxoak prozesuan dago. Ea udazkenean bukatuko dudana...)

- Orain arte aipatutakoaz gainera, duzun materiala, bibliografia esate baterako, oso gomendagarria iruditzen zaigu. Beraz zure laguntza ezin baliotsuagoa eskertzeaz aparte, zuk eman diezagukezun kolaborazio orok balio izugarri handia du guretzat.

Prest naukazue nahi duzueenerako: hitzaldiren bat edo beste ematea, ekonomiazko testu bat edo beste elkarrekin irakurtzea eta bera komentatzea, galdera zehatz eta konkretu batzuei erantzuten saiatzea, politika ekonomikoaz eta fiskalaz sakontzea...

Halaber, gure eskualdeaz, hau da, Ibar Ezkerraz eta, oro har, Enkarterriz iritzi trukaketan aritzea, dela hizkuntzaz, kulturaz edo dena delakoaz, beti euskaraz, noski...

- Mila esker, ondo izan , eta hurrengo batera arte.

Ez adiorik.

Santurtzin, 2013.08.08

joseba felix tobar-arbulu (donejurgi)